



GIPUZKOAKO IKASTETXEEN FISKALITATEAN IDEIA BERRITZAILEAK, 2024/2025 IKASTURTEA

Ideiaren izenburua:

Etorkizun hobe baten prezioa

A. Ideiaren LABURPENA idatzita, ideiaren alderdi eta balore nagusiak azalduz eta nabarmenduz

Zergen dirua erabiltzen duten zerbitzu publiko guztiek zigilu edo ikono bat izatea da ideiaren oinarria. Hau da, zerbitzu publikoek ikono berezi bat izatea, hori gure zergen diruarekin ordaintzen dela jakinarazteko.

Denok dakigu hezkuntza publikoa, osasuna, etab zergekin ordaintzen direla, baina gure zergen diruak askoz zerbitzu gehiago ere ordaintzen ditu, eta jendea ez da konturatzen zenbaterainoko garrantzia duten. Horregatik ikono bat izango dute zergen bitartez finantzatzen diren zerbitzu guztiek.

Ikonoaren itxura:



Gainera QR bat eskaneatzeko aukera ere emango da. QR hau ikonoaren ondoan joango da eta zerbitzu horiek ez dituzten herrialdeen irudiak erakutsiko dira. Horrela ikusi ahal izango dugu gure zergekin zenbat zerbitzu ordaintzen diren eta zergak ordaintzen ez badira nola amaituko duten gure zerbitzuek.

Adibidea:



Beraz, gure ideiak gizartearengan sentsibilizazio ariketa sustatu nahi du eta biztanleek zergei garrantzia eman ezean, ditugun zerbitzuek nola amaituko duten ikustea “txoke bidezko terapia” moduan funtziona dezake.